



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 5a

59. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-25/CCOI-00006. «Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren urteko kontuak, 2023 eta 2024» fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/CCOI-00006. «Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren urteko kontuak, 2023 eta 2024» fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak «Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren urteko kontuak, 2023 eta 2024» fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA***ORRIALDEA*

|  |    |
|--|----|
| I. SARRERA .....   | 4  |
| II. HELBURUAK ETA IRISMENA .....   | 4  |
| III. 2023KO EKITALDIKO KONTUEN AURKAKO IRITZIA .....   | 5  |
| IV. 2023KO EKITALDIKO KONTUEN AURKAKO IRITZIAREN OINARRIA .....  | 5  |
| V. BESTE LEGE- ETA ERREGELAMENDU-BETEKIZUN BATZUEI BURUZKO TXOSTENA .....  | 6  |
| VI. ENFASI-PARAGRAFOA .....  | 8  |
| VII. JARDUNEAN DIRAUEAN ENTITATEAREKIN ZERIKUSIA DUEN ZIURGABETASUN MATERIALA .....  | 10 |
| VIII. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK .....  | 10 |
| IX. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA .....   | 11 |
| X. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA .....   | 11 |
| XI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK .....   | 12 |
| 1. GEHIGARRIA. KASUKO ARAUDIA .....  | 14 |
| 1. ERANSKINA. KONTUEN GANBERAREN GOMENDIOAK, NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN 2019-2022 ALDIKO KONTUEI BURUZKOAK .....     | 15 |
| 2. ERANSKINA. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN GASTU, DIRU-SARRERA ETA LANGILERIAREN BILAKAERA (2019-2024) .....           | 16 |
| 3. ERANSKINA. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN EGOERA-BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA, 2023KO ABENDUAREN 31KOAK ..... | 17 |

## I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2024ko irailaren 2ko bilkuran erabaki zuen, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren ekimenez, Kontuen Ganberari fiskalizazio-txosten bat eskatzea “*Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren 2023ko eta 2024ko ekainaren 30era bitarteko kontuei*” buruz. Kontuen Ganberak 2025erako fiskalizazio-programan sartu zuen eskari hori.

Kontuen Ganberak txosten bat jaulki zuen 2023ko abenduaren 19an, 2019-2022 epealdiko Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren (aurrerantzean, NGK) urteko kontuei buruzkoa, eta txosten honen 1. Eranskinean jasotzen diren 14 gomendioak biltzen ziren bertan. Halaber, 2. Eranskinak jasotzen du NGKk eta haren langileriak 2019-2024 epean izandako gastuen eta diru-sarrereren bilakaera.

Auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen landa-lana 2025eko urtarril eta otsailean, Ganberako zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan honen emaitzen berri eman zitzaizen NGKren eta Nafarroako Gazteriaren Institutuaren arduradunei, alegazioak aurkez zitzaizten. Epea amaituta, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu NGKko langileei, NGI-Nafarroako Gazteriaren Institutukoei, Gozamenek<sup>1</sup>-ekoei, NGKko nominak prestatzeko zerbitzua ematen zuen aholkularitzakoei eta Nafarroako Parlamentukoei (Parlamentua, aurrerantzean), lan honen prestaketan eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUAK ETA IRISMENA

Parlamentuarengandik jasotako eskaera kontuan hartuta, gure lanak helburutzat izan du iritzia ematea ea NGKren 2023 eta 2024ko ekitaldietako kontuek irudi fidela ematen ote duten, alderdi esanguratsu guztietan, ekitaldi horietako abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

2023ko ekitaldiaz ohartarazten dugu ezen NGKk ez zuela urteko konturik egin; ezta, beraz, Batzar Nagusiak urtero onetsi behar dituen kontabilitateko egoera-orriak ere (egoera-balantzea eta galdu-irabazien kontua). Datu hori gure lanaren norainokoarentzat eragozgarri gerta bazitekeen ere, sarbidea izan dugu erakunde horrek kontabilitatea erregistratzeko erabiltzen duen aplikazio informatikoan; horrela, bada, txosten honen 3. eranskinean jasotako abenduaren 31ko egoera-balantzea eta galdu-irabazien kontua eskuratu ditugu.

Aurreko hori gogoan izanik, fiskalizazioaren norainokoa NGKren urteko kontuak dira, zeinak osatuta baitaude 2023ko ekitaldiko abenduaren 31ko egoera-balantzeaz eta galdu-irabazien kontuaz.

2024ko kontuei dagokienez, NGKren aplikazio informatikoan erregistraturiko kontabilitate-mugimendurik ez da agertzen. Hori dela-eta, Kontuen Ganberak, datu horren eragin oso handia dela-eta, ez dauka modurik kontuen fiskalizazioa egiteko, ez eta horri buruzko iritzirik adierazteko ere.

NGKri aplikatzekoa den araudia txosten honekin batera doan 1. gehigarrian dago jasota.

<sup>1</sup> Gozamenek zenbait elkarte eta entitateren federazio bat da, sexualitate- eta gazteria-alorretako programa komunitario bat aurrera daramana.

### III. 2023KO EKITALDIKO KONTUEN AURKAKO IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, NGKren urteko kontuak fiskalizatu ditu, 2023ko ekitaldiari dagozkionak. Kontu horiek balantzea eta galdu-irabazien kontua barne hartzen dituzte, urte horretako abenduaren 31koak.

Gure iritziz, gure txosteneko "Aurkako iritziaren oinarria" atalean azaldutako gaien eragina oso esanguratsua denez, urteko kontuek ez dute erakusten, alderdi esanguratsu guztietan, NGKk 2023ko abenduaren 31n ondareari eta finantza-egoerari dagokienez zuen irudi fidela, ez eta data horretan amaitutako ekitaldian izan zituen emaitza ekonomikoena ere; betiere, finantza-informazioari buruz aplikatzekoa den arau-esparruarekin bat eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat.

### IV. 2023KO EKITALDIKO KONTUEN AURKAKO IRITZIAREN OINARRIA

Aipatu dugun aurkako iritziari oinarri ematen dituen salbuespenak honako hauek dira:

a) Balantzeko partida guztien hasierako saldoa zero da, aurreko urteko zenbatekoak aintzat hartu gabe, ezen NGKk ez zuen ekitaldia irekitzeko idazpenik egin. Ixteko idazpenik ere ez zuen egin.

b) Dirulaguntzengatiko eta beste kontzeptu batzuegatiko diru-sarreraren aitortpena ez zen behar bezala kontabilizatu; izan ere, zenbateko horiek ez ziren galdu-irabazien kontuan agertu.

c) "Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuk" epigrafean -113.564 euroko saldo bat agertzen da. Saldo zuzena 5.600 euro litzateke, Parlamentuarekin sinaturiko hitzarmenetik kobrakizun dagoen zenbatekoaren ondorioz.

d) Ez ziren kontabilizatu hileroko nominak, aparteko ordainsariak eta 2023ko abenduko atzerape-nengatiko nominak, zeinak 19.203 euroan balioetsiak baitzeuden, aholkularitzak helarazitako nomina-laburpenaren arabera.

NGKk halaber ez zuen kontabilizatu entitateak Gizarte Segurantzari eginiko urte osoko gastua, 24.698 eurokoa.

e) "Beste hartzekodun batzuk" epigrafearen saldoa negatiboa da, 4.330 eurokoa, eta 20.964 euro positibokoa beharko luke izan, Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta abarreko zorrak agertzeko.

f) NGKk ez zituen behar bezala erregistratu 2023ko apirilean itxia izan zen kreditu-kontuari loturiko mugimenduak, eta horrek berekin dakar balantzearen saldoa 6.268 euro negatibokoa izatea, nahiz eta zerokoa behar zuen izan.

g) Berrikusitako banku-mugimenduen arabera, NGKk ez zituen kontabilizatu 6.240 euro gastu, ezta 8.224 euro diru-sarrera ere. Gainera, okerreko kopuruz kontabilizatu zituen diru-sarreretakoa 5.000 euro eta konturako ordainketetakoa 5.129 euro.

h) Balantzean ez da ageri ekitaldian eskuratutako ibilgetu materiala, 2.722 eurokoa.

i) Balantzeko "Esku-dirua eta beste aktibo likido batzuk" epigrafeak 4.608 euroko saldo negatiboa agertzen du, nahiz eta 935 euroko positiboa izan beharko lukeen.

j) "Epe laburreko beste zor batzuk" epigrafearen zenbatekoa negatiboa da 3.125 euroan, nahiz eta zerokoa izan beharko lukeen.

Horrek guztiak esan nahi du egoera-balantzea eta galdu-irabazien kontua oker daudela, eta kontu jakin batzuen saldoak ez izatea koherenteak aplikatu beharreko finantza-informazioaren esparruarekin. Hitz batean: ez dute azaltzen NGKren egoera finantzarioaren irudi leiala.

Gure fiskalizazio-lana egin dugu kanpo-kontrolerako erakunde publikoek dituzten oinarriko fiskalizazio-printzipioei jarraituz; zehazkiago, fiskalizazio finantzarioei buruzko ISSAI-ES 200 arauari jarraituz. Beherago deskribatzen dira arau horien indarrez ditugun erantzukizunak; gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, hain zuzen ere.

NGKrekiko independenteak gara, kontu orokorreari buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika alorreko eta independentziaren defentsaren alorreko baldintzak betez, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak eskatzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure aurkako iritzia emateko.

## V. BESTE LEGE- ETA ERREGELAMENDU-BETEKIZUN BATZUEI BURUZKO TXOSTENA

NGKren urteko kontuei buruzko gure finantza-auditoretzan ezarritako irismenari helduta, erakunde horretako organo kideaniztunen eta pertsonabakarren eginkizun-betetzea berrikusi dugu, eginkizun horiek zerikusia izanik haien kontuen prestatze eta onespenerekin eta 2015ean onetsitakoa den eta ikuskatutako aldiari aplikatzekoa den “Barne Araudia eta Batzarren Araudia” delakoak ezarritako araubide ekonomiko eta administratiboarekin.

Egiaztapen hori egin da ezarritako barne kontrola egiaztatzeko auditoretza-prozedurak aplikatuz.

Ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu jotzeko ezen 2023an honako zertzelada garrantzitsu hauek urratu zirela, “Barne Araudia eta Batzarren Araudia” delakoarenak:

- Batzorde Iraunkorrek<sup>2</sup> Batzar Nagusiari ez zion aurkeztu aldi horretako galdu-irabazien kontua, ez eta 2023ko abenduaren 31ko egoera-balantzea ere. Ondorioz, Batzar Nagusiak, zeina osatzen baitute NGKren kide diren entitateen ordezkariak, kontabilitate egoera-orri horiek ez zituen ez aintzat hartu, ez eztabaidatu, ez eta onetsi ere egin.

- Batzar Nagusiak ez zuen kideek NGK ekonomikoki mantentzen laguntzeko kuotarik onartu.

- Ez dago jasota lehendakariak harako eginkizuna bete egin zuenik, ordain-agindua banku-sinadura bikoitzeko sistema baten bidez ematearena. Eginkizun hori administrazio-zereginetan ziharduen pertsonak, eta ez beste inork, egin zuen.

- NGKari ari zen pertsonetako bat 2023an kaleratua izan zen, eta 5.214 euroko kitapena pagatu zitzaion. Gero, pertsona horrek iragarri egin zuelarik bere kontratua azkentze aldera NGKk harturiko erabakia auzitegietan aurkaratzeko, orduan lehendakari zenak akordio bat sinatu zuen pertsona horrekin, zeinaren bidez entitateak kitapen hura 3.105 euroan handitu baitzuen. Ez dago jasota zertan oinarritu zen kopuru horren kalkulua, ez eta kasuko nomina egin izana edo egin beharreko atxikipenak egiazki egin izana.

- Ez dago jasota diruzainak aldi behin Batzorde Iraunkorrari NGKren egoera ekonomikoaren berri eman ote zion, ezta kontabilitatea kontrolatzeko eta ondasun-inbentarioa atontzeko eginkizunak bete zituenik ere.

- Jarraian, jakingarri bat zehazten dugu, zerikusia duena NGK 2023an jardun ziren bi pertsonaren nominekin, eta aipatu kontrol-eza agerian uzten duena:

Gozamenez zenbait elkarte eta entitateen federazio bat da, sexualitate- eta gazteria-alorretako programa komunitario bat aurrera daramana. NGK Gozamenez-en kide da, eta proiektuan bere borondatez parte hartu izan du betidanik, haren jarduera-oroitidazkiak azaltzen duen bezala.

2023an, Osasun Departamentuak sustapen eta heziketa afektibo-sexualeko programa batzuetarako laguntza-deialdi bat onetsi zuen. NGKk, laguntza bat lortze aldera, proiektu bat prestatu zuen, baina, zeukan izaera juridikoa zela-eta, ezin zen entitate onuradun izan. Horregatik, proiektu hori Gozamenez-ek aurkeztu zuen, eta ekainean 32.529 euroko dirulaguntza bat onetsi zitzaion. Programak 2023ko maiatzetik azarora zirauen, eta horren gaineko kudeatze-lana NGKk egiten zuela erabaki zen.

Lan hori egiteko, NGKko lehendakariak administrariaren eta elkartegintza-teknikariaren kontratuko lanaldia handitu egin zuen 2023ko maiatzetik abendura bitarteko eperako, nahiz eta programaren kudeaketa azaroan bukatzen zen. Ez da justifikaziorik jaso epea abendura arte luzaztearen arrazoiari buruz. Kontratuaren nobazioan esanbidez adierazten zen ezen, behin epe hura bukatuta, pertsona horiek beren ohiko lanaldiari berrekinen ziotela. Lanaldi-luzapen horren on-

<sup>2</sup> NGKko organoa, zeinaren kide baitira lehendakaria, lehendakariordea, diruzaina, idazkaria, kudeaketaren arduraduna eta Batzar Nagusiak gehienez hautatutako sei batzordekide.

doriozko nomina-gehikuntza finantzatuko zen Gozamenez-ek jasotako dirulaguntzarekin, zeinetako funtsak, haren kontuetan egon arren, 2023ko ekainaz geroztik NGKko langileek administratzen baitzituzten.

Beste jakingarri bat da kasuko langileek gauzaturiko nomina-kobranta, zeinak, 2023an, honako bereizgarri hau izan baitzuen:

a) Maiatzetik abuztura bitartean, langileek NGKren kontuetatik kobratu zituzten beren nominak, barne zegoela Gozamenez programa kudeatzeagatik ordainsaria. Gastu hori finantzatze aldera Gozamenez-etik NGKari helarazitako funtsek, zeinak NGKko langileek kudeatuak baitziren, ez zituzten aurreikusten Gizarte Segurantzari egin beharreko ekarpenak, ez eta langileen ordainsari-igoera horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eginarazten zituen atxikipenak ere.

b) Irailetik azarora bitartean, NGKko langileek entitate horrengandik kobratu zuten lan arruntari zegokion partea bakarrik; Gozamenez-en programaren kudeaketari zegokion partea, berriz, Gozamenez-ek beren kontu partikularretara eginiko zuzeneko transferentzien bitartez jaso zuten. Ezezaguna zaigu funts-kudeaketan izandako aldaketa horren arrazoia. Zuzenean Gozamenez-engandik kobratzeak berekin ekarri zuen zenbateko horiek sortuak baina ordainkizun gisa agertzea NGKaren balantzean.

c) Azaroan, NGKren langileek entitate horrengandik nomina gehigarri bat jaso zuten, "Gozamenez atzerapenak" kontzeptukoa, guztira 3.690 eurokoa, baina jasota egon gabe lehendakariak edo NGKko beste edozein organok horri buruzko oniritzia eman ote zuen. Ezezaguna zaigu zergatik ordaindu ziren aipatu atzerapenak, baldin programaren kudeaketagatik kopuru adostuak langileek jadanik jasoak izan baziren.

Programa horrengatik NGKk 2023an izandako gastuaren laburpena honako hau da:

|  | Gozamenez programaren kostua, kontratu-nobazioaren arabera (a) | NGKko langileria ordaindutako kostu erreala, aholkularitzak helarazitako nominen arabera (b) | (b) – (a) |
|--|--|--|-----------|
| NGKko langileek jasotako kopuru likidoa  | 4.645  | 7.946  | 3.301     |
| NGKarentzako langileria-gastuaren zenbatekoa, barne direla Gizarte Segurantza eta PFEZ | 8.514  | 15.901   | 7.387     |

Langileek egiazki jasotakoaren eta Gozamenez-ek bere gain hartzekoak ziren programaren kudeaketagatik gastuen arteko aldea gehienbat eratortzen da abenduko langile-nominetatik, zeinak ez baitzeuden Gozamenez-en programan aurreikusita (nahiz eta langileen kontratu-aldaketan hartu egiten ziren, bai, kontuan), abenduko nomina oker horrekin kalkulaturiko abenduko aparteko ordainsaritik eta abenduan arrazoi justifikaturik gabe jasotako atzerapenetatik.

Programaren kudeaketari dagokionez, azaroaren 30ean NGKk 4.686 euroko faktura bat jaulki zuen, 2023ko maiatzetik azarorako epeagatik, Gozamenez-entzat, xede harturik hura frogagiri gisa aurkeztea jasotako dirulaguntzarako. Zenbateko hori 2023ko abenduan helarazi zitzaion NGKari Gozamenez-etik. Alabaina, hilero helarazten joan ziren kopuru guztiak, zeinek guztira 4.256 euro egiten baitzuten, hasiera batean NGKari helarazi ere, eta gero zuzenean langileei, ez ziren dirulaguntzaren justifikazioan onartuak izan, langileria-gastuak ez baitziren diruz laguntzeko moduko kontzeptuak. Zertzelada horrek, bai eta onartuak izan ez ziren beste gastu batzuek, Gozamenez-i ondorio gisa ekarri zioten 5.519 euro itzuli behar izatea Osasun Departamentuari. Federazio horrek ahalegina egin zuen NGKarekin harremanetan hartzeko, hari eskatze aldera onartu gabeko 4.256 euroak itzul zitzaizkion; baina, adierazi digutenez, hori ez zen posible izan.

Gero, 2024an, Gozamenez-en programan ziharduten bi pertsonak beren lehenagoko lanaldia berrekin beharko zioten, bai eta 2023ko maiatzera arte kobratzen ari ziren kopurua jasotzeari ere. Alabaina, 2024ko urtarrilean, NGKko lehendakariak pertsona horien kontratuaren nobazio bat egin zuen urte horretako urtarrila-azaroa eperako, nahiz eta Gozamenez-ek kasuko dirulaguntza lortzeko dirulaguntza-deialdia argitaratu gabe egon, eta nahiz eta artean inork jakin ez ea haren programak finantzaketa jasoko ote zuen eta, kasua bazen, horren kudeatzailea NGK izanen ote zen.

Kontratu-nobazio hori ez dago inola ere justifikatuta. Inola egitekotan, egin beharko zen Gozamenez-ek kasuko dirulaguntza jadanik lortuta zeukanean. Eta hori ez zen gertatu. Horrek ondorio muntadunak izan zituen, txosten honen VI. epigrafean zehazten dugun bezala. Labur esanda, horren ondorioa izan zen NGKarentzat 5.575 euroko langile-gastuak sortzea, lotuta zeudenak gauzatu ez zen programa baten kudeaketarekin, zeina ez baitzen gauzatu Gozamenez ez zelako urte horretako deialdira aurkeztu.

Dena den, nominetan jasotako kopuru horiek Iruñeko Arlo Sozialeko 3. Epaitegiaren epaien bitartez izan dira aitortuak, zenbait epaiketa egin ondoren, zeinetara NGK ez baitzen agertu, txosten honen VI. epigrafean zehazten dugunez.

Aurreko guztiak agerian jartzen du Gozamenez-en programaz NGKk eginiko kudeaketa okerrekoa izan zela, eta entitateari diru-kaltea ekarri ziola. Horrez gain, begi-bistan geratu da entitateko diruzainak eta gainerako zuzendaritza-organoez ez dutela inolako kontrolik egin langile-gastua bezain garrantzitsua den puntu baten gainean. Ildo horretan, oro har ez dago jasota nominen baliozkotzerik, ez eta "Gozamenez-en atzerapenak" direlakoak ordaintzeko justifikaziorik, ez eta bertako langileei ordainketa hori agintzeko emandako baimenik edo ahalmenik ere.

## VI. ENFASI-PARAGRAFOA

Ohartarazten dugu auditoretzan ikuskaturiko kontabilitate egoera-orrien dataren eta auditoretza-txosten honenaren artean izandako geroagoko gertakari hauetaz:

- NGKko langileen egoera

NGKn ziharduten bi pertsonak demanda bana aurkeztu zioten Iruñeko Epaitegi Dekanoari 2024ko apiril eta maiatzean, zeinen bidez eskatzen baitzuten beren kontratuak azkenduak izatea, ordainduak ez izateagatik 2023ko abenduko aparteko ordainsariaren eta 2024ko urtarrila-martxo eta urtarrila-apirila epeen nominak, hurrenez hurren.<sup>3</sup>

Bi epaiketetara FOGASA-Soldatak Bermatzeko Funtsaren ordezkari bat joan zen, eta biak 2024ko uztailean egin ziren. NGKak, baina, ez zuen horietan agerraldirik egin. Ganbera honek ez daki zer dela-eta NGKa ez zen agertu. Bi epaiketetako epaiek diotenez, "*...NGKa agertu ezenez, demandari zegokionez aitorten-egiletzat hartua izan behar zen, eta kasukoa urraketa astun eta erruduna zen, hari zegokionez...*". Halaber zehazten zuten ezen zertzelada horrek justifikatu egiten zuela kontratuen azkentzea, eta NGKa zigortzen zuen bi pertsona horiei irazpen bidegabeagatik kalte-ordaina ematera eta, horrez gain, haiei zor zizkien kopuruak ordaintzera.

Bi epai horiek 2024ko irailean bihurtu ziren irmo, eta haiek ezarritako ordainkizuna 78.416 eurokoa da, barne harturik nomina pagatugabeak, kalte-ordainak, interesak eta kostuak.

NGKak ez zituenez ordaindu zor zituen kopuruak, 2024ko urrian Iruñeko Lan-arloko 3. Epaitegiak dekretu bat jaulki zuen, kasu batean, eta auto bat, bestean, epai horien diruzko betearazpena agindurik. Txosten honen prestaldian, NGKak ordaindu gabe dauka epai horiek agindutakoa.

Epaiek "zorpeko ordainsari" kontzeptuan langileen alde aitorturiko zenbatekoari dagokionez, Ganbera honek honakoa adierazi nahi du:

a) Langileek erreklamaturako 2023ko abenduko eta 2024ko nominetan sartuta zegoen Gozamenez-en kudeatze-lanarengatik ordainsaria, nahiz eta programa jadanik 2023ko azaroan amaituta egon. Nahiz eta lehendakariak kontratu-nobazioa halako moldez sinatu zuen non Gozamenez-eko programa 2024an kudeatzeari begira lanaldi-luzapenari eusten baitzitaion, programa hori ez zen aurrera eraman.

b) Halaber, nomina horiek barne hartzen zuten borondatezko hobekuntzagatik osagarriaren ehuneko 17,5eko igoera, kasu batean, eta ehuneko 35,8koa, bestean, ehuneko 3,9koa bazen ere hitzarmenean jasotakoa. Ez dago jasota lehendakariak edo entitateko beste organoren batek soldata-igoera hori baimendu izana.

<sup>3</sup> Kasu batean nahitaezko administrazio-adiskidetze egintza egin zegoen, eta bestean horretarako ahalegina egin zen, baina NGKak ez zuen egintza horretan agerraldirik egin.

Aurreko horren ondorioa da zor zen kopurua baino 7.228 euro gehiagoko langile-gastua aitortu izana (barne hartzen dituena ordainsariak gehi pertsonaren eta enpresaren Gizarte Segurantzagatiko atxikipenak eta PFEZa). Kontuan hartzen badugu hitzarmenean ezarritakoa baino gehiagoko ordainsari-gehiakuntzaren ondoriozko partea bakarrik, kopurua 1.653 eurokoa litzateke.

"Gazte Parlamentua" proiektuko teknikariari dagokionez, pertsona hori 2023ko abenduaren 31n izan zen iraitzia, Parlamentuak erabaki zuelako hitzarmena 2024an ez berritzea. Haren kontratua amaitzeko unean, NGKk abenduko nomina (aparteko ordainsari bat barne) eta kitapena zor zizkion. Langileak adiskidetzeko demanda bat aurkeztu zuen, NGKk irazpeneko kopuru ordaindugabeak paga ziezazkion, eta horren ondorioz 2024ko otsailaren 2an egitekoa zen adiskidetze-ekitaldi batera izan zen NGKa deitua. Ez dakigu NGKa bertaratu ote zen, ez eta auziaren emaitza zein izan zen.

- NGLren 2023ko dirulaguntza

2023ko martxoan, NGKk hitzarmen bat sinatu zuen NGLarekin, zeinaren bitartez 88.000 euroko dirulaguntza jasoko baitzuen. diru horretatik, soilik 1.605 euro ziren jarduera-gastuetarako. NGKk honela jasoko zuen dirulaguntza: lehenbiziko ordainaldia ehuneko 30ena izanen zen, hitzarmena sinatzean; bigarren ordainaldia, ekainaren 15era bitartean, aurreiazko gastu-justifikazioa tarteko; hirugarren ordainaldia, urriaren 15era bitartean, aurreiazko gastu-justifikazioa tarteko; eta amaierako gastu-justifikazioa, abenduaren 10a baino lehenago, hitzarturiko guztizko kopurura iristeko falta zen kopuruarena, kasua baldin bazen.

NGKk abenduaren 10ean justifikakizun zeukan jasotako azken kopurua 25.500 eurokoa zen. NGKk 18.451 euroko gastuak aurkeztu zituen, eta horietatik 17.919 onartu ziren. Hori horrela, NGLk itzulketa-espeditente bat izapidetu zuen 2023ko abenduan, jasotakoaren eta justifikatutakoaren arteko diferentziarakoa, zeina 7.581 eurokoa baitzen. NGKk itzulketa-espeditenteari alegaziorik ez zionez aurkeztu, 2024ko otsailean entitate horri hilabete bat eman zitzaion, aipatu kopurua itzul zezan. Hilabete hori igarota, NGKk ez zion institutuari inolako kopururik ordaindu; hori horrela, zorra agentzia exekutiboari bidali zitzaion.

Txosten honen prestaldian, NGKk NGLrekin duen zorra 9.364 eurokoa da, barne harturik interesak eta errekaruak.

- NGKren beste zor batzuk

Entitateak beste ente batzuekin dituen zor estimatuak 35.068 eurokoak dira, jarraian zehazten denaren arabera:

| Hartzekodunak                     | Zenbatekoa (eurotan) |
|-----------------------------------|----------------------|
| Gizarte Segurantza                | 11.866               |
| Nafarroako Foru Ogasuna           | 7.389                |
| Espainiako Gazteriaren Kontseilua | 10.000               |
| Gozamenez                         | 4.256                |
| Iruñeko Udala                     | 1.557                |
| <b>Beste zor batzuk, guztira</b>  | <b>35.068</b>        |

Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

a) Nominarik ez ordaintzeak ondorio gisa ekartzen du NGK zorretan egotea Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin ere, 11.866 euroan, interesik eta errekarurik sartu gabe, informazio hori ez baitugu lortzerik izan.

b) NGKk 7.389 euro zor dizkio Nafarroako Foru Ogasunari, horren zio direla PFEZeko atxikipenak, berandutze-interesak eta kasuko errekaruak.

c) 2024ko urtarrilean, NGKk 10.000<sup>4</sup> euroko mailegua jaso zuen Espainiako Gazteriaren Kontseiluarengandik, eta diru hori itzuli gabe dago.

<sup>4</sup> Kopuru horrekin ordaindu zituen NGKk azaroko gizarte-segurantza, abenduko langile-nominak (Gozamenez-en partea barne hartu gabe) eta aholkularitza, telefonoa eta paperkiak.

d) NGKk 4.256 euro aipatu horiek Gozamenez-i zor dizkio federazio horrek onartu ez eta Osasun Departamentuari itzulitako gastuengatik.

e) NGKk 1.557 euro zor dizkio Iruñeko Udalari, entitate horrek laga zion egoitza 2024an erabiltzearen ondorioz sorturiko hornidura-gastuengatik.

- NGKren egoitza

2021eko martxoan, Iruñeko Udalak lokal bat laga zuen, NGKk egoitza bezala erabil zezan, eta lagapen hori kasuko hitzarmenaren bitartez formalizatu zen. 2024ko abuztuan, udalak lokal hori beste zeregin baterako erabiltzea erabaki zuen, eta aipatu hitzarmena azkentzeko ebazpen bat jaulki zuen, bai eta NGKri dei egin ere bere egoera delikatu konpon zezan. Une horretan, udalak beste lokal bat lagako zion. Txosten honen idatzaldian, ez da horri buruzko inolako izapiderik egin; horrela, ba, NGK egoitzarik gabe dago.

- NGKren gobernu-organoak

NGKk lehendakari bat izan zuen 2022ko urritik 2023ko martxora bitartean; kargu horretan beste pertsona bat aritu zen 2023ko martxotik abendura arte, eta beste batek hartu zuen abenduan postuaren jabetza, alabaina dimisioa emanik, gainerako zuzendaritza-organoekin batera, 2024ko ekainean.

2024ko uztailaren 19an izan zen deitua NGKren Batzar Nagusia; besteak beste, lehendakaria eta kide-postu hutsak hautatzeko. Izan ere, aipatu dimisioaren ondoren, pertsonak jardunean segitzen zuten beren karguetan. Batzar horretara lau pertsona bakarrik bertaratu ziren; horrenbestez, eten egin zen batzarra, eta kasuko karguak ez ziren berri.

**Hitz gutxitan**, NGKk gaur egun ez dauka ez langileriarik eta ez lokalik; lehendakaritzan eta zuzendaritza-organoetan diharduten pertsonak jardunean ari dira; eta, gutxienez ere, 121.232 euro zor dizkie pertsona eta entitate desberdinei. Ez dakigu ea NGKk beste hornitzaile batzuekin ere zorrik izan ote lezakeen.

## VII. JARDUNEAN DIRAUEKIN ENTITATEAREKIN ZERIKUSIA DUEN ZIURGABETASUN MATERIALA

Ohartarazi beharra dugu NGKk 2023ko abenduaren 31n bizi duen finantza-egoeraz.

Bestetik, txosten honetako "Enfasi-paragrafoa" atalean azaltzen diren eta geroagokoak diren 2024ko jakingarrien ondoriozko egoera uztartzen baldin bada NGKren egungo banku-saldoarekin, zeina zero eurokoa baita, bai eta pertsona eta entitate desberdinekin duen zorra gutxienez ere 121-232 eurokoa izateari, horrek guztiak erakusten du ziurgabetasun material batean dagoela, zalantza mardulak sorrarazten dituen entitate horrek jarduteko moduan segitzeko duen gaitasunari buruz.

## VIII. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIK

Auditoretzako funtsezko gaiak dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan duten horiek, jadaneko epealdiko urteko kontuei buruz egin dugun fiskalizazioan. Gai horiek jorratuak izan dira urteko kontuen multzo osoari buruz egin dugun auditoretzaren eta ondorioztatu dugun iritziaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako "Aurkako iritziaren oinarria", "Enfasi-paragrafoa" eta "Jardunean dirauen entitatearekin zerikusia duen ziurgabetasun materiala" ataletan azaldutako gorabeherak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako beste inolako alderdiren berririk ematen.

## **IX. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA**

Diruzainaren ardura da kontabilitatea kontrolatzea; eta, Batzorde Iraunkorrena, aldi horretako diru-sarreraren eta gastuen kontua eta abenduaren 31ko egoera-balantzea aurkeztea Batzar Nagusian, onets daitezzen.

Lehendakariaren ardura da NGKa eragile publiko nahiz pribatu orean aurrean ordezkatzeta.

Batzorde Iraunkorrek bermatu behar du egindako kudeatze-jarduerak eta -eragiketak bat datozela "Barne araudia eta batzarren araudia" delakoarekin, horretarako beharrezkotzat jotzen dituen sistemen bidez eta indarreko araudia kontuan harturik.

## **X. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA**

Gure helburua da zentzutasunezko ziurtasun bat lortzea NGKren urteko kontuak beren osotasunean iruzur edo akatsaren ondoriozko oker materialik gabe egoteari buruz.

Zentzutasunezko ziurtasun hori ziurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolleko organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik akats material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izan daitezke, bai eta legedia ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materializat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta eta, betiere, zentzutasunez aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo-kontrolleko organoei buruzko araudiarekin bat etorriz, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo akats baten ondoriozko oker materiala eta legeria-urraketak egotearen arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta gure iritzia oinarri emateko behar adinako eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko oker material edo urraketa bat ez atzematearen arriskua handiagoa da akatsaren ondoriozko oker material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izaten ahal dira kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihesteko egintzak.
- Fiskalizatorako esanguratsua den ezagutza, barne-kontrolari buruzkoa, lortzen dugu, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.
- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak zentzutasunezkoak diren, eta ea egokia den kudeaketa-organoak emandako informazioa.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, azaleratutako informazioa barne, eta ea kontu horiek irudi leiala adierazteko moduan azaltzen ote dituzten transakzioak eta horien azpiko egitateak.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsua, eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari dagokionez identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri. Entitateko gobernu-organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein gai izan diren fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan direnak.

## XI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Nafarroako Gazteriaren Kontseilua 1986an sortu zen, xede gailentzat harturik Nafarroako Foru Komunitatearen garapenean gazteen parte-hartzea sustatzea eta haien eskubideak zaintzea. Erakunde publiko atipikoa da, eta haren diru-sarrerak, haren erregelamenduan xedatzen dena gorabehera, zeinaren arabera bere elkarteen kuotak baititu diru-iturri nagusizat, jatorriz publikoak dira guzti-guztiak, eta gehienbat NGLarengandik (ehuneko 81) eta Parlamentuarengandik (ehuneko 15) heltzen dira.

2023an, entitate honen ordainketak eta kobrantzak, aztertutako banku-laburpenaren arabera, 128.322 eta 127.780 eurokoak izan ziren, hurrenez hurren. 2024an, banku-mugimenduen ondoriozko gastuak eta diru-sarrerak 11.033 eta 10.099 eurokoak izan ziren.

Zenbateko horiek aintzat harturik, 2023ko eta 2024ko abenduaren 31ko banku-saldoak, hurrenez hurren, 935 eurokoa eta zero eurokoa ziren (azken zenbateko hori zen 2025eko urtarrilaren 23an zegoena).

2023aren hasieran, lau pertsonak egiten zuten lan NGKn; hala ere, otsailean, NGItik jasotako dirulaguntza ehuneko 29 murriztu zenez, pertsona batek bertan lan egiteari utzi zion. Halaber, Parlamentuak NGKri jakinarazi zion ezen 2024an ez ziola dirulaguntzarik emanen; horrela, bada, abenduan beste pertsona batek utzi zion bertan lan egiteari. Horren ondorioz, 2024an bi pertsonak bakarrik ziharduten lanean bertan; biak, urte horretako martxotik gaixotasunagatik bajaran. Haien kontratuak uztailean izan ziren azkenduak, lehen aipaturiko epaien arabera.

Txosten honen idatzaldian, NGKk zenbait pertsona eta entitaterekin duen zorra 121.232 eurokoa da, gutxienez ere.

NGKren administrazio-zereginak, funtsean, honako hauek izan dira: kasuko ordainketak egitea eta jasotako dirulaguntzetarako justifikazioa prestatzea. Azkeneko hori araudia betez egin da, eta erakunde emaleek behar bezala berrikusi dute. Alabaina, kontabilitatea ez da behar bezala egin; horrek esan nahi du Batzorde Iraunkorrek aurkeztu beharreko eta Batzar Nagusiak onetsi beharreko 2023ko kontabilitate egoera-orriak ez direla zuzenak, eta ez dutela NGKren ondarearen irudi leiala islatzen, ez eta finantza-egoera edo emaitza ekonomikoak ere. Halaber, eta jadanik lehenago esan dugun bezala, NGKak ez zuen inolako kontabilitate-idazpenik erregistratu 2024an.

Bere horretan dirau aurreko gure txostenean NGKaren organoei buruz agertu genuen kontrol-ezak, ez baitute urrats egokirik egin Barne Erregelamendua betetzen dela zaintzeko, eta ez da bete Ganbera honek 2023ko abenduan egin zituen 14 gomendioetako bakar bat ere. Halaber nabarmentzen dugu NGKaren lehendakaritzan hiru pertsona desberdin egon zirela 2023-2024 epean.

2023an, NGKaren jarduerak apaltzen segitu zuen, jardueretarako gastuen bilakaerak, zeina 2. eranskinean jasota baitago, erakusten duen bezala. Urte horretan, jardueretarako gastuak 9.837 eurokoak izan ziren (horietatik, ehuneko 47 dira Europako Parlamentura eginiko bidaia batenak, zeinak Europatik berriazko finantzaketa jaso baitzuen); hots, 2022koa baino ehuneko 61 txikiagoa den kopurua. 2024. urteari dagokionez, ez dago jasota inolako jarduerarik, ez baitzen egin NGLrekiko hitzarmena, horretarakoa, eta aipatu urteko martxotik aurrera langileriarik ez baitzegoen.

**Laburbildurik**, Ganbera honek aurreko bere txostenean adierazita utzi zituen ondorio eta gomendioak errepikatu egiten ditu, jasota utzirik NGKak ez daukala jarduerarik, ez dela betetzen ari esleituta dauzkan eginkizunak, eta ez daukala ez langileriarik ez eta egoitza fisikorik ere. Haren organoak, jardun-egoerakoak 2024ko ekainaz geroztik, ez dira berrituak izan, urte horretako uztailean eginiko batzarrean quorumik ez lortzeagatik, eta ez dira beren eginkizun eta ardurak betetzen ari. Horrez gain, NGKak egoera finantzario jasanezina bizi du, gutxienez ere 121.232 eurokoa den zorra duela. Horrek guztiak esan nahi du baldintza horietan entitate horren iraupena ez izatea bideragarria.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

- *Azter bedi NGKa existitzearen komenigarritasuna, aintzat harturik duen egoera finantzario pattala eta langilerik, jarduerarik eta kontrolik eza.*

- *Baldin entitate horri eusten segitzea deliberatzen bada, Ganbera honek aurreko bere txostenean ohartarazten zuenari heldurik aldatu beharrekoa litzateke NGKren zuzenbidezko taxuera,*

*halako moldez non oinarri pribatuko korporazio-ente gisa definituko baita, Espainiako Gazteriarren Kontseiluarenaren antzeko izaera juridikoduna.*

- *NGKk bere gaur egungo taxuerekin nahiz beste batekin existitzen segituz gero, dagoen zorrari aurre egiteko finantzaketa-iturriak bilatu beharko dituzte, bai eta haren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren kontrol-bideak eta moduzko tutoretza finantzarioa ezarri ere.*

Txosten hau jaulkitzen da haren egitearen arduradun izandako Karen Moreno Orduña auditorak proposatuta, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

*Iruñean, 2025eko apirilaren 9an*

*Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador*

## 1. GEHIGARRIA. KASUKO ARAUDIA

NGKri aplikatu beharreko araudi nagusia honako hau da:

### Foru araudia

- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 11/2011 Foru Legea, apirilaren 1ekoa, Gazteriari buruzkoa.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 110/1986 Foru Dekretua, apirilaren 18koa, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteriaren Kontseilua sortzen duena.
- 53/2023 Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezartzen dituena.

### Araudi berekia

- 2015ean onetsitako barne araudia eta batzarren araudia.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren estatutuz kanpoko hitzarmena, 2019ko otsailean onetsia eta 2022ko irailean berritua.

## **1. ERANSKINA. KONTUEN GANBERAREN GOMENDIOAK, NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN 2019-2022 ALDIKO KONTUEI BURUZKOAK**

### **Lege-konfigurazioa**

- *NGKren lege-konfigurazioa aldatzea, Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren izaera juridikoren antzekoa izateko, oinarri pribatuko entitate korporatibo gisa definituz.*
- *Izaera juridikoa aurreko gomendioan adierazitakoaren arabera aldatua izan ondoren, legez esleitu zaizkion eginkizun guztiak betetzea, eta haren antolaketa-egitura eta baliabide pertsonal eta finantzarioak hark bere jarduera garatzeko behar-beharrezkoak diren etara egokitzea.*

### **Kontabilitate-alarrean**

- *Kontabilitate-egitate guztiak behar bezala erregistratzea.*
- *Urteko kontuak formulatu aurreko egokitze eta bat-etorrazte lanak egitea.*
- *Finantza-informazioko esparruari jarraikiz galdu-irabazien kontua eta egoera-balantzea formulatzeko erabilitako kontabilitaterako aplikazio informatikoaren disfuntzioak konpontzea, erakundearen errealitatea isla dezaten.*

### **Barne-kontrola**

- *Barne-araudia betetzen dela zaintzea, erakundeko organoek esleituta dituzten eginkizun guztiak baliatzen dituztelarik.*
- *Ordainketak egiteko sinadura mankomunatua ezartzea.*
- *NGKko kide diren erakundeen errolda berrikustea eta eguneratzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.*
- *Egiten diren urteko batzarretan formulatutako kontabilitate egoera-orriak onestea.*
- *Berriz onartzen bada lanpostu hautetsietan aritzeagatiko konpentsazioa edo kalte-ordaina ematea, hori ez egitea lan-kontratuzko kontratazio baten ondoriozkoak diren soldata batzuen ordainketa gisa.*
- *Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean publikotasunari buruz ezarritako betekizunak betetzea.*
- *Finantzatzeko modukoak diren gastu guztiak aurkeztea jasotako dirulaguntzen justifikazioan.*

### **Finantzaketa**

- *Erakundearen kideei kuotak kobra dakizkien onestea eta kobrantza hori eskatzea.*
- *Kreditu-lerroak negoziatzea banku-erakundeekin, gastuen eta diru-sarreraren arteko denbora-desfasearen ondoriozko likidezia-arazoak konpontzeko.*

**2. ERANSKINA. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN GASTU, DIRU-SARRERA ETA LANGILERIAREN BILAKAERA (2019-2024)****NGKren 2019-2024 gastuak (banku-mugimenduen arabera)**

|                         | 2019           | 2020           | 2021           | 2022           | 2023           | 2024          |
|-------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|---------------|
| Langileria              | 146.032        | 134.573        | 103.500        | 109.972        | 93.899         | 10.106        |
| Jarduerak egiteko       | 25.496         | 20.151         | 25.927         | 25.004         | 9.837          | -             |
| Funtzionamendu-gastuak  | 7.101          | 7.065          | 9.258          | 12.093         | 10.727         | 751           |
| Ekipamendua             | 2.700          | 2.906          | 6.166          | 2.869          | 105            | -             |
| Finantza-gastuak        | 437            | 1.067          | 299            | 1.553          | 5.582          | 93            |
| Beste gastu batzuk      | 5.502          | 3.121          | 2.985          | 2.669          | 8.171          | 84            |
| <b>Gastuak, guztira</b> | <b>187.268</b> | <b>168.883</b> | <b>148.135</b> | <b>154.160</b> | <b>128.322</b> | <b>11.033</b> |

**NGKren 2019-2024 diru-sarrerak (banku-mugimenduen arabera)**

|   | 2019           | 2020           | 2021           | 2022           | 2023           | 2024          |
|---|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|---------------|
| NGI hitzarmena                          | 161.329        | 141.445        | 124.050        | 124.942        | 82.473         | 0             |
| Nafarroako Parlamentuarekiko hitzarmena | 20.000         | 22.400         | 21.353         | 26.696         | 25.823         | 0             |
| Beste diru-sarrera batzuk               | 13.473         | 2.695          | 317            | 942            | 19.484         | 10.099        |
| <b>Diru-sarrerak, guztira</b>           | <b>194.802</b> | <b>166.540</b> | <b>145.720</b> | <b>152.580</b> | <b>127.780</b> | <b>10.099</b> |

**NGKko langileak, 2019-2024**

|   | 2019     | 2020     | 2021     | 2022     | 2023     | 2024     |
|---|----------|----------|----------|----------|----------|----------|
| Administraria                           | 1        | 1        | 1        | 1        | 1        | 1        |
| Elkartegintza-teknikaria                | 1        | 1        | 1        | 1        | 1        | 1        |
| Sozioekonomia-teknikaria                | 1        | 1        | -        | -        | -        | -        |
| Gazte Parlamentua proiektuko teknikaria | 1        | 1        | 1        | 1        | 1        | -        |
| Komunikazio-teknikaria                  | 1        | 1        | 1        | 1        | 1        | -        |
| Koordinatzailea                         | 1        | 1        | -        | -        | -        | -        |
| <b>Langileak, guztira</b>               | <b>6</b> | <b>6</b> | <b>4</b> | <b>4</b> | <b>4</b> | <b>2</b> |

### 3. ERANSKINA. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN EGOERA-BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA, 2023KO ABENDUAREN 31KOAK<sup>5</sup>

#### Egoera-balantzea, 2023ko abenduaren 31koa

| AKTIBOA  | 2022           | 2023            | PASIBOA   | 2022            | 2023            |
|--|----------------|-----------------|---|-----------------|-----------------|
| <b>A) AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>                                      | <b>2.617</b>   | <b>0</b>        | <b>A) ONDARE GARBIA</b>   | <b>-140.109</b> | <b>-104.479</b> |
| I. Ibilgetu ukiezina   | 0              | 0               | A-1) Funts berekiak   | -140.109        | -104.479        |
| II. Ibilgetu materiala   | 2.617          | 0               | I. Kapital soziala  | 0               | 0               |
| III. Ondasun higiezinak inbertsioak                                | 0              | 0               | II. Jaulkipen prima   | 0               | 0               |
| IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak    | 0              | 0               | III. Erreserbak   | 0               | 0               |
| V. Epe luzeko finantza-inbertsioak                                 | 0              | 0               | IV. (Akzio eta ondare-partaidetza propioak)                         | 0               | 0               |
| VI. Zerga geratuaren bidezko aktiboak                              | 0              | 0               | V. Aurreko ekitaldietako emaitzak                                   | 0               | 0               |
|  |                |                 | VI. Bazkideen bestelako ekarpenak                                   | 0               | 0               |
| <b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>   | <b>-20.700</b> | <b>-118.201</b> | VII. Ekitaldiko emaitza   | -140.109        | -104.479        |
| I. Izakinak  | 0              | 0               | VIII. Konturako dibidendua  | 0               | 0               |
| II. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk | -6.792         | -113.594        | A-2) Ondare garbiko doikuntzak                                      | 0               | 0               |
| 1. Bezeroak, salmenten eta zerbitzu-emateen ondoriozkoak           | 0              | -30             | A-3) Jasotako dirulag., dohain. eta legatuak                        | 0               | 0               |
| 2. Akziodunak, eskatutako despoltsapenak direla-eta                | 0              | 0               |   |                 |                 |
| 3. Bestelako zordunak  | -6.792         | -113.564        | <b>B) PASIBO EZ-KORRONTEA</b>                                       | <b>0</b>        | <b>0</b>        |
| III. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak   | 0              | 0               | I. Epe luzeko zuzkidurak  | 0               | 0               |
| IV. Epe laburreko finantza-inbertsioak                             | 0              | 0               | II. Epe luzeko zorrak   | 0               | 0               |
| V. Epe laburreko ekintzak  | 0              | 0               | III. Taldeko enp. eta elkartuetako e.luz. zorrak                    | 0               | 0               |
| VI. Eskudirua eta beste aktibo likido balio-kide batzuk            | -13.908        | -4.608          | IV. Pasiboak, geroratutako zerga dela-eta                           | 0               | 0               |
|  |                |                 | V. Epe luzeko ekintzak  | 0               | 0               |
|  |                |                 | VI. Merkataritza hartzekodun ez-arruntak                            | 0               | 0               |
|  |                |                 | VII. Epe luzeko zor berezia   | 0               | 0               |
|  |                |                 |   |                 |                 |
|  |                |                 | <b>C) PASIBO ARRUNTA</b>  | <b>-1.345</b>   | <b>-13.723</b>  |
|  |                |                 | I. Epe laburreko hornikuntza  | 0               | 0               |
|  |                |                 | II. Epe laburreko zorrak  | -8.000          | -9.393          |
|  |                |                 | 1. Kreditu entitateekiko zorrak                                     | -8.000          | -6.268          |
|  |                |                 | 2. Finantza-errentamenduagatiko hartzekodunak                       | 0               | 0               |
|  |                |                 | 3. Epe laburreko zorrak   | 0               | 3.125           |
|  |                |                 | III. Taldeko enp. eta elkartuetako e.lab. zorrak                    | 0               | 0               |
|  |                |                 | IV. Merkat. hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk | 6.655           | -4.330          |
|  |                |                 | 1. Hornitzaileak  | 0               | 0               |
|  |                |                 | 2. Bestelako hartzekodunak  | 6.655           | -4.330          |
|  |                |                 | V. Epe laburreko ekintzak   | 0               | 0               |
|  |                |                 | VI. Epe laburreko zor berezia                                       | 0               | 0               |
| <b>Aktiboa, guztira (A+B)</b>                                      | <b>-18.084</b> | <b>-118.201</b> | <b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+B+C)</b>                   | <b>-141.455</b> | <b>-118.201</b> |

<sup>5</sup> Zuzenean NGKren aplikazio informatikotik lortutako kontabilitate egoera-orriak. Erakunde horrek ez ditu alde zuzenik lortu, eta organo eskudunak ez ditu onetsi.

**Galdu-irabazien kontua, 2023ko abenduaren 31koa**

|  | <b>2022</b>     | <b>2023</b>     |
|--|-----------------|-----------------|
| <b>Zorra (hartzekoa)</b>   |                 |                 |
| 1. Negozio-zifraren zenbateko garbia                                     | 0               | 0               |
| 2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldea          | 0               | 0               |
| 3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak                             | 0               | 0               |
| 4. Hornidurak  | 0               | 0               |
| 5. Bestelako ustiatze diru-sarrerak                                      | 0               | -1.500          |
| 6. Langileria-gastuak  | 109.991         | 85.136          |
| 7. Beste ustiapen-gastu batzuk   | 44.213          | 20.843          |
| 8. Ibilgetuaren amortizazioa   | 0               | 0               |
| 9. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta beste batzuen egozpena    | 0               | 0               |
| 10. Gehiegizko hornidurak  | 0               | 0               |
| 11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura            | 0               | 0               |
| 12. Beste emaitza batzuk   | 0               | 0               |
| <b>A) Ustiapenaren emaitza (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12)</b>              | <b>-154.149</b> | <b>-104.479</b> |
| 13. Diru-sarrera finantzarioak   | 0               | 0               |
| a) Finantza izaerako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak egoztea      | 0               | 0               |
| b) Bestelako diru-sarrera finantzarioak                                  | 0               | 0               |
| 14. Gastu finantzarioak  | 457             | 0               |
| 15. Tresna finantzarioetako balio-aldaketa zentzuzkoa                    | 0               | 0               |
| 16. Kanbio-diferentziak  | 0               | 0               |
| 17. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura | 0               | 0               |
| 18. Bestelako diru-sarrera eta gastu finantzarioak                       | 0               | 0               |
| a) Gastu finantzarioak aktiboan sartzea                                  | 0               | 0               |
| b) Hartzekodunen hitzarmenetatik eratorritako diru-sarrera finantzarioak | 0               | 0               |
| c) Gainerako diru-sarrerak eta gastuak                                   | 0               | 0               |
| <b>B) Emaitza finantzarioa (13+14+15+16+17+18)</b>                       | <b>-457</b>     | <b>0</b>        |
| <b>C) Zerga aurreko emaitzak (A+B)</b>                                   | <b>-154.606</b> | <b>-104.479</b> |
| 19. Mozkinen gaineko zerga   | 0               | 0               |
| <b>D. Ekitaldiko emaitza (C + 19)</b>                                    | <b>-154.606</b> | <b>-104.479</b> |



